Erantzun irekia

Zeruko Argia asterokoaren zuzendariari gutun irekia bidali dio Imanol Laspiur-ek. Eta gutun irekiak erantzun irekia eskatzen du.

Norbaitek idatzitako gutun bat hartzeak beti eman ohi du halako poz eta zirraratxo bat bihotzean. Beti da pozkarri etxekoen eta adiskideen eskutitza. Aldizkari batean lan egiten dugunontzat ere pozkarri da benetan idazleon eta irakurleon irtziak jasotzea. Baita kontu-eske datozenean ere. Eskerrik asko, beraz, iritzi-emale guztioi.

Lehenik inprimategiko okerrez mintzo zaigu Imanol. Arrazoi du. Amorragarriak dira izan ere. Lerrokada osoak galtzen ez badira hor nonbait. Gaitzerdi. Askotan hitzegin dugu gai honetaz hemengo zuzendariok. Baina oker hau zuzentzea ez da dirudien bezain erraza. Euskararik ez dakien jendeak inprimatzen du Z. Argia. Zuzentzaileak beti gainean egon beharko luke, beraz. Inprimategiak ez du itxogiten, bere martxa eramaten du. Ez du horregatik bere lantegiko lan bat atzeratuko. Eta linotipistak idatzi ahala okerrak zuzentzeko nahiko urruti bada Iruinea Donostiatik. Donostian bertan beharko genuke inprimategia. Honek, ordea, beste oker batzuk ekar ditzake.

Zuzen dena okertzen edo bere gustora jartze nduen zuzentzaileaz zer esan dezakegu, ordea?

Aldizkaritan euskararen zuzentzaile bat behar zela Euskaltzaindiak berak erabaki zuela uste dugu. Eztabaidagarri da jokabide hau ezpairik gabe. Honela ez dakigu nork dakien euskaraz eta nork ez. Inoiz baino idazle gehiago eta hobeak ditugulakoan harro bizi gintezke. Euskaraz oso ondo dakiela uste duen jende asko da. Ondo idazten duen jende asko da gaurregun. Bestelakorik ere bada, ordea.

Zer egin? Gramatika falta eta guzti argitara eman? Noraino iritsi garen jakiteko hori litzateke biderik onena. Zuzentzaileak okerrak zuzenduko dizkionez gero idazlea bera ere zabarrago eta narratzago ihardun ohi da, gainera.

Halaz guztiz ere beharrezkoa da zuzentzailea gure egoeran. Oso jatortzat dugu Euskaltzaindiak hartu zuen erabakia. Idazle bakoitzak batasun arauak ikasi bitartean zuzentzailea, lagun ona zitekeela uste izan zuen. Baina, zoritxarrez, batasunerako bideak ez ezik, euskararen beraren legeak ere ikasi beharra dugu idazle askok.

Gramatikazko faltaz betea argitaratzen da zenbait lan. Gaztelaniaz ez lirateke argitaratuko, noski. Idazle askok beharrezkoa dugu, beraz, zuzentzailea.

Lan gogaikarria eta eskerga egiten du honetan Z. Argiako zuzentzaileak. Oso ondo idatzitako lan asko etortzen da, bestelakorik ere bai, ordea. Zuzentzaileari esker agertu ohi dira txukun honelakoen lanak. Presaka egin behar izaten du, gainera, lan amorragarri hau. Ari denari gertatzen zaizkio eta zuzen zegoena oker jartzea ere badaiteke inoiz. Hutsezinik ez da munduan.

Z. Argiako zuzentzaileak arretaz eta zentzuz betetze ndu bere egitekoa. Idazle bakoitzaren nortasuna eta idaz-tankera errespetatuz egiten du beti. Euskaltzaindiak hartutako erabakien arabera ihardun ohi da. Ez du inoiz Euskaltzaindiaren gainetik bere iritzirik ezarriko.

Erabaki gabe diren gauzetan zer egin? Aldizkariek ez dezakete batasunaren jomuga ahantz. Zuzentzaileari dagokio idazleen arteko zenbait desberdintasun berdintzea. Hitz bera, aditz bera, era askotara irakurlea nahasten du. Hau guztia kontuz egin behar dela, jakin, badakigu. Bakoitzaren iritziak eta joerak errespetagarriak dira. Idazle onen eta batez ere Mitxelenaren jokabideari begiratu ohi diogu honelakoetan. Halere ez dugu beti asmatuko. Baina inork ez digu gure borondate onik ukatuko, noski.

Imanol Laspiur-en gutun irekiari eta idazleen kezkari erantzun diogun ala ez, ez dakigu.

Dena den Xalbador Garmendiak egiten duen lana ikaragarria da. Z. Argiako idazle eta irakurleok zor haundia diogu. Har beza gure esker ona, jendaurrean, gure zuzentzaile jatorrak.

zeruko ARGIA
EUSKALDUN ASTEROKOA

DENON ARTEAN HOBEA
BILA EZAZU HARPIDEA

Izen-deiturak .....

Kalea ..... Zenbakia .....

Herria ..... (Prob.) .....

Benvingust a Andorra

25.000 biztanle, 464 km², mendi batean mila metro goratasunez, ikusgarria da Andorra. Eta areago euskaldunontzako.

Malkor eta gailur haien artean, euskal hibotza ez bide da zeharo arrotz gertatzen. Are gutxiago —Corominas—en izkribuak irakurri baino lehenago ere— leku-izen askoren euskal kutsu nabarmena ohartuz: Larrabasa, Aos, Bixesarri, Lorri, Anyos, Escas, Juberri (=«nom d'origine basque», azaltzen du erosi dudan liburu gidariak, «comme dans la majorité des villages d'Andorre»); Andorra bera agian, Andoain, Andosilla eta Andueza ezagutzen ditugularik. Noiz galdu ote zen gure hizkuntza eskualde garai haietan? Ondoko Ribagorzako mendialdeek euskara, gutxi gora-behera, XIV. mendera arte entzun baldin badute, noiz katalandartu ote ziren andorratarrak? Azterketek jakin eraziko digute ondoko urteotan; eta sospresak izango direla gauza segurua iruditzen zait.

Utz dezagun hori, dena dela, alde batera, beste zerbaitez lerro batzuk izkiriatzeko.



Bixesarriko etxe zahar batzuk.

Andorra ez da gaur antzinatasuren gordailu bat. Inondik ere ez. Andorraren ezagugarri nagusia, hain zuzen ere, gaurkotasuna da, bizitasuna, berritasuna. Baserri zahar ilunik oraindik ere ikus badaiteke Bixesarrin edo Canillon, Barcelona bide da Andorra; dendak ugari, merkatalgoa bizi, etxeak berri eta gora, kezko kutsadura itogarri, berebila uzteko tarterik ezin aurki, eta abar. Eta, hori bai: katalanez.

Turismoaz bizi da Andorra, ia osoki. Mendietako mazeletan, nekazaritza-lanetarako behinola prestatutako zabalguneak, zabarturik agertzen dira. Andorratarrak aisago bizi daitezke salerosketaz; eta nekazaritza, tabako apur bat izan ezik, aldebat utzia dute.

Turismoaz bizi. Hortaz, kanpotarrez bizi. Hortaz, ondoko katalanak kenduz gero bederen, frantsesez eta españeraz mintzo diren etorleez bizi. Hotz, hauxe da harrigarriena: Andorra kanpotarrez bizi den herri txiki bat izanagatik ere, katalana da arrunt eta katalan agertzen du bere burua.

«Poble Andorra» kaseta, katalan hutsez argitaratzen da, turista famatu horietaz jaramonik ez eginik. Ostatuetan, gelako oharrak eta ordainketa hostoak berak, katalanez ematen dira soilki. Gauza bera denden izenak, denak ulert-errazak ez badira ede: «saló de bellesa», «basar», «cuina selecta», «rellotgera», «vanvi de monedes», «viatges». Saltokietan, baita handienetan ere, katalanez irakutzen dira izkirioak: «raspalls», «sabons», «clarins», «frikenz», «sortida», «defés de fumar». Eta diru-kaxan, ohar hau dago: «no se admetrá cap reclamació»; baita «el nostre magatzem romandrá obert». Komunetan «dones» eta «homes» irakur daiteke. Eta lanetan ari diren denda batetan, hau: «assabenta als seus clients i amics la propera obertura del nou establiment»...

Areago. Kalea gurutzatzeko argi gorriak daude; eta hauek, nahi izanez gero, eskuz eragon daitezke. Hots, azalpen bakarra hau da: «Per a passar pitgen el boto».

Eta, berebilez nindoalarik, kale batetik kontrara sartu nintzenean, antza, berebiziko predikua bota zidan politziak; baina ez nion gauza handirik konprenitu, bere «prediku» hori... katalanez egin baitzidan!

Horrelakorik gure artean gertatuko balitz, zer ez genuke entzungo «chauvinismoz» eta abarrez? Turistez bizi izanda, nola liteke horren «errealismo» urririk izatea? Nola liteke horren «katalana-mania» eroa izatea? Nola liteke horren «errespetu» gutxi izatea? Geure artean ahapeka hitzegingo genuke euskaraz, eta goratik ari izatean erdaraz. Industriaz bizi garelarik ere lotsaturik, eta erdaldun bakar batek zeharo jota uzten gaituelarik, noraino ez ginateke joango Andorra-koen kasoan bezala turisten irribarreez eta onginahiaz bizi behar izanez gero? Badakigu noraino: aski da Donibane, Maule eta Garazi bisitatzea... Lehenago hil euskaltasun aztarnarik agertu baino. Larreñeko oroitarrian bertan, dena frantsesez: «route entrenvallées soeurs» eta abar.

Euskal izeneko kaseten abonamendu-txartelak ez ote dira, bada, frantsesez egiten, eta inor ere harritzen ez delarik?

Andorrak, alderantziz, turismoaz elikaturik, bere askatasunari eta bere katalantasunari eusten diela-ta, ez dago batere hiltzeko zorian. Inoiz baino biziago eta inoiz baino aberatsago da, hain zuzen: 30 urte honetan, boskoiztu egin du bere jendaketa. Eta bide beretik jarraitzeko du: «L'éveil de la personnalité autochtone, défendant les coutumes, la langue et la culture face aux influences étrangères, est évident».

Nolako eredua! Euskarari buruz dagokionez koldar-zulo honetan bizi garenontzako, eta «por razones prácticas« kolonialista hori modan dagoelarik, nolako zarrastada Andorran!

Noiz izango dugu, ordea, andorratarren oldartasun hori? Noiz izango, hizkuntzaren mailan, beste mailatan erakutsirik daukagun ausardia? Gizon gisa dugun harrotasuna, noiz izango euskaldun gisa? Zenbat mendetan barrena abiatu ote da gainbehera gure Euskal Herria, oraindik ere bere buruaz horren izuti eta horren beldurti egon dadin? Zenbat milaka trajerik sartu ote du gure herriaren muinetan beretan erdaldun agertzeko eta izateko jorana?

Noiz Andorra- tartuko ote gara, hitz batez, kanpotarren eta arroztuen esamesez futituz?

Noiz erasoko ote dugu, zinez, geure etxea osoki geure egin arte?

LARRESORO

ETA GUK ZER EGITEN DUGU?

Uda parte honetan alfer samar gabiltza gehienok, urteko lanak atseden piskat eskatzen bait du. Baina galdera batzuk egitea, azterketa gaia eskaintzea, onuragarri izango zaigulakoan nago. Uda garaian prestatu behar bait da kursoko lana. Baina gatozen harira zuzenean.

Liburu bat erabili dut, egun hauetan, esku artean. Erdal liburu bat. «POLITICA OBRERA EN EL PAIS VASCO» 1880-1923 deritzana. Juan Pablo Fusiren tesi doktoral bat. Eta liburua irakurtzerakoan, neure baitan izenburu bezala ipinitako galdera sortu zait.

Egileak, langilegoaren aldetik bere historia idazten duenez, Bilbo eta bere ingurutako gertakizunak aipatzen ditu gehienbat. Bertako industriatzea, langile mugimenduaren sorrera, geroztik izan diren borroko eta gorabeherak, eta abar. Benetan liburu baliagarria dela ezin uka. Dato ugari eskaintzen du, batez ere «El Socialista» eta «La lucha de clases» aldizkaritatik jasotako datoak.

Halaz ere, motz gelditzen zaigu gure autorea. Sozialismoaren ardazpean sortu eta indartutako mugimenduaz bakarrik dihardu ia behienbat. Beren arteko tirabirak eta borrokak aipatzen ditu, Hirugarren Internazionalari dagokionez, gehienbat. Abertzaletasun mugimendua eta baita eusko langileena ere, indar eskuindar, atzerakoi bezala gehiago ezaltzen digu. Abertzaletasuna eta sozialismoa, garai hartan egiten zen planteamenduaren arabera, ezin elkartuzkoak bait ziren.

Hutsegite larria beraz Fusi jaunarena, eta are hutsegite larriagoa euskaldunona. Eta egiteko hau garrantzitsua dugu oso geure herringintzan. Garrantzi haundikoa da gure historiaz jabetzea, horretaz arduratzea eta, batez ere, geroa prestatzea.

Badugu nazioz gaindi onartua den sindikatoa, bada, nire ustez, eusko langileriaren historia, bada euskaldun eta langile bezala lanik asko egin duen jenderik, eta bada, baita euskaltasuna eta ezker jokabidea bateraturik, gaurregun lanean diharduen mugimendurik ere.

Liburuak argitaratzea baino premia larriagorik badugu geure artean; gure arazoa liburuak eta aldizkariak argitaratze hutsarekin konponduko den usteari inozokeria deritzat. Ez dut uste inork uste ustel hori onartzen duenik.

Baina gauzak egitea ez da aski, borrokatzea ez da nahikoa, jendeari ezagutarazi egin behar zaio, jendeak egiaren berri zehartz-mehatz jakin dezan. Eta historiak erakusten digunez, politika edo sindikalgintzan zerbait egin nahi izan duen orok, bere komunikabide tresnak prestatzen ahaleginak egin izan ditu. Erdal publikazioei begirada bat emanaz argi ikusten da nor zertan dabilen, noren lanak publikatzen diren, zer, zergatik eta zertarako esaten duten. Euskal aldizkariak gogoan hartuta, agian, beste horrenbeste esaterik izango dugu, baina gero eta gehiago definitu behar dugula uste dut, non gauden eta zer nahi dugun jendeak argi eta garbi jakin dezan.

Eta hori da, besteak beste, liburu hori irakurtzerakoan egin dudan gogoeta. Patxada gehiagoz berriro liburua irakurri ondoren, kritika bat ere egingo diot, agian. Baina, oraingoz, liburuaren mamiak baino gure arteko hutsuneak kezkatiago nauka. Teoria hotzarekin ez dugu jenderik irabaziko, ekintzak eta ekintzabide aukerak irabaz dezake jendea; eta horren ondoren berri emanaz, noski.

Euskal langileriaren arlo barruan, lan hau egin dezakeenik badenez, ea lehenbaithelen euskal langileriaren historia bat eskaintzen diguten. Eta, et, konplejoak eta taldekoriak utzita, klase berrokari uko egin gabe, egiazko herrigintza bidetan abiatzen garen.

MIKEL UGALDE

zeruko ARGIA

JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek.
Burlada, Kale Nagusia, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88
Ondezkaria: Kaletano Ezeiza Iturriza

ARPIDE SARIA:

Barruan	400 pezeta
Korreo batasunetako herrietan	620 pezeta
Atzerrietako beste herrietan	460 pezeta
Airez	Aldez aurretik galdetu
Salmenta (ale bakoitza)	10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkola: «Gráficas Navasal» A. Adoain, 1. IRUIÑEA
D. L.: NA. 80-1963